

2013ko gizarte-txostena

Gizarteratzeko eta Laneratzeko Enpresak Euskadin

Laguntzailea:




Asociación de Empresas
de Inserción del País Vasco
Gizarteratzeko eta Laneratzeko
Euskadiko Enpresen Elkartea

2013an Gizateako bazkide izan diren laneratze eta gizarteratze enpresei buruzko daturik garrantzitsuenak


Gizarte-txostenean parte hartu duten Gizateako laneratze eta gizarteratze enpresak, guztira.	45
Pertsonen buruzko datuak*	
Langile kopurua -Laneratze eta gizarteratze prozesuan eta prozesutik at-.	999
Gizarteratze langileak.	648
Lansaiosoko lanpostuak -Laneratze prozesuan eta prozesutik at-.	661
Lansaiosoko laneratze lanpostuak.	420
Ibilbidea amaitzean, lan-merkatuan sartzen diren pertsonen ehunekoa.	50,68
Datu ekonomikoak	
Sarrerak, guztira.	27.910.519,26
Fakturazioa, guztira.	19.138.689,07
Ustiapen diru-sarreretatik, diru-laguntza publikoen ehunekoa.	28,55
Langileen kostuak.	15.031.776,23
Sortutako Balio Erantsi Gordina.	17.082.167,42
Laneratze enpresek herri administrazioei itzultzen dieten zenbatekoa	
Herri administrazioei itzultitakoa, Gizarte Segurantzaren, gertakizun arrunten, BEZaren, Sozietateen gaineko Zergaren eta bestelakoen bitartez.	3.220.759,18
Herri administrazioei itzultitakoa, Gizarte Segurantzaren, gertakizun arrunten, BEZaren, Sozietateen gaineko Zergaren eta bestelakoen bitartez, lanpostu bakoitzeko.	7.671,94

Banaketa geografikoa




* Bereizketa egiten dugu laneratze lanpostuaren eta lanerantze pertsonaren artean: laneratze postua edo plaza delakoak urte osoko lansaiosoa esan nahi du, eta laneratze pertsona delakoak, berriz, lansaiosoko lanpostua eduki edo lansaiosoko partziala lanpostua izan dezake.

Forma juridikoa




Esparru geografikoa




Informazio sozila


2010-2013ko langileen bilakaera




Pertsonak generoaren arabera




2008-2013ko laneratze lanpostuen bilakaera




Jarduera sektoreak




Diru-sarrerak




2008-2013ko salmenten bilakaera (€)




Diru-laguntza motak



2009-2013ko salmenten bilakaera (€)



Bezere-zorria



2013ko gizarte-txostena



Gizarteratzeko eta Laneratzeko Enpresak Euskadin

Laguntzailea:



Gizatea
Asociación de Empresas
de Inserción del País Vasco
Gizarteratzeko eta Laneratzeko
Euskadiko Enpresen Elkarte

2013ko gizarte-txostena
Gizarteratzeko eta laneratzeko enpresak Euskadin

2014ko urria

Gizatea

Asociación de Empresas de Inserción del País Vasco
Gizarteratzeko eta Laneratzeko Euskadiko Enpresen Elkarte

Venezuela plaza 1, 2. solairua, Ezk.-Ezk. • 48001 Bilbao

Tel.: 944 010 959

gizatea@gizatea.net

www.gizatea.net

Twitter: @Gizatea

Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.

Itzulpena: Gizatea

Inprimatzea: Lankopi, S.A.



Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin 3.0

Dokumentu honek Creative Commons erakundearen lizentzia dauka. Obra hau libre kopiaitzeko, banatzeko eta jakinarazteko baimena ematen da, betiere haren egilea aipatzen bada eta merkataritza-helburuetarako erabiltzen ez bada. Dokumentuan aldaketarik egiten bada, beste era bateko dokumentua sortzeko edo horretan oinarrituta beste obra bat egiten bada, hau bezalako lizentzia eskuratuta baino ezin izango da banatu. Lizentzia osoa:

<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/es/legalcode.eu>

Aurkibidea

Aurkezpena



5



Informazio soziala

7

Informazio ekonomikoa




13



Itzulkin ekonomikoa

19

Ondorio eta erronkak



23



Laneratzeo Enpresak

27

Aurkezpena



Aurtengo honekin, *Gizateak* (Gizarteratzeko eta Laneratzeko Euskadiko Enpresen Elkarte) bosgarren urtez jarraian argitaratu du bazkide dituen enpresen Txosten Soziala, 2013an izan zuten jarduerari buruzko datu finkatu eta pilatuak emanez. Modu horretan, 45 enpresari buruzko informazioa aurkezten da, bai enpresa-jarduerari eta jarduera ekonomikoari dagokionez, eta bai xede sozialari dagokionez ere: lan-merkatura sartzeko zailtasun bereziak dituzten pertsona langabeei emandako laguntza, gizarteratzeari eta laneratzeari buruzko informazioa, alegia.

Gaur egungo egoera ekonomikoa eta lan-egoera kontuan hartuta, xede sozial handinahia eta konplexua da hori; izan ere, ezegonkortasuna, langabezia eta gizarte-bazterketa gero eta pertsona eta gizarte-segmentu gehiagorengana heltzen ari da. Eta, hain zuzen ere horrexegatik, eta zailtasunak zailtasun, zentzuzkoa da enplegu-politika aktiboen aldeko apustua egitea, krisiarekin edo krisirik gabe lan-merkatutik urrunen dauden pertsonen laneratzea ahalbidetuko duten tresnak barne hartuz (tresna horien artean daude, adibidez, gizarteratze eta laneratze enpresak).

Hori dela eta, Txosten Sozial hau argitaratuta, *Gizateak* laneratzearekiko eta gizarte-kohesioarekiko duen konpromisoa indartu nahi du, eta, gainera, instituzioei, ekonomia eta lan arloko agenteei, gizarte-erakundeei eta euskal herritarrei dei egin nahi die,

politika sozialen inguruko atzerapauso mota oro eragotz dezaten, eta lehentasuna eman diezaieten populazio osoaren ongizatea zaintzera bideratutako neurriei, arreta berezia jarriz gizarte eta ekonomia arloko bazterketan edo horretarako arriskuan dauden pertsonengan.

Gizarteratze eta laneratze enpresak pertsona horiek gizarteratzeko aukerak eman ditzakeen bideak dira, beste bide askoren artean. Halaxe frogatzen dute argitalpen honetan eskaintzen diren datuek, bai eta azken urteotako bilakaerak ere. Gainera, pertsona horien sustapenerako eta mantenimendurako jasotako laguntzen itzulera sozialari eta ekonomikoari buruzko datu zehatzak ere egiaztatu daitezke, eta, beraz, ondorioztatu daiteke gizarteratze eta laneratze enpresak babestea inbertsio errentagarria dela, sozialki eta ekonomikoki.

Hala, bada, Gizarte Txosten honen bitartez, gizarteratze eta laneratze enpresen ikusgarritasuna areagotu nahi dugu, eta helburu bera bilatzen dugu, oro har, enpresa horiek gizartean egiten duten lanaren emaitzekin, eta, modu zehatzago batean, agente instituzional eta sozialen artean egiten duten lanarekin.

Argitalpenaren edukiei dagokionez, zabal daitekeen estalki bat du, eta, bertan, grafiko eta magnituderik garrantzitsuenak agertzen dira. Aurkezpen horren ondoren, gizarteratzeko eta laneratze enpresen lanaren alderdi sozialarekin zerikusia duen kapitulua aurkituko dugu. Jarraian, alderdi ekonomikoari buruzko datuak daude, eta, gero, enpresa-jardueraren itzulkin ekonomikoa aztertzen duen atal berezi bat. Azkenik, emandako informazioa aztertu ondoren ateratako ondorio nagusiak agertzen dira, eta gizarteratzeko eta laneratze enpresen etorkizuneko lanaren erronkarik garrantzitsuenak ere bai.

Eskerrak eman nahi dizkiegu gizarteratzeko eta laneratze enpresei, guztiek **Gizatea** elkartearekin izan duten konpromisoagatik, bertan erantsita agertzen diren datuak eman dizkigutelako. Bestetik, zorionak eman nahi dizkiegu enpresa horietan eta beren erakunde sustatzaileetan sartuta dauden lagun guztiei. Izan ere, engaiamendu sendoa erakutsi dute, gizartean baztertuta dauden edo egoera horretan geratzeko arriskuan dauden pertsonak gizarteratzeko eta laneratze eginkizunean. Ildo horretan, formula etikoagoak eta solidarioagoak proposatu dituzte enpresa – eta ekonomia-esparruan, eta, horrenbestez, ekarpen handia egin dute gure gizartea osorik eraldatzeko.

Horrez gain, bereziki azpimarratu nahi dugu Amaia Navedak egin duen lana, hemen aurkezten ditugun datuak bildu, tratatu eta aztertzeko egin duen zeregin konplexua dela-eta. Era berean, argitalpenaren maketazioa eta azken itxura moldatzeko Marrak egin duen lan arretatsua nabarmendu behar dugu.



Laneratze enpresak, gizarte bazterketa arriskuan edo egoeran dauden pertsonen laneratzea eta gizarte-partaidetza bultzatzeko, enpresa jarduera bitartez, enpleguan oinarritzen diren ekimenak dira.

999 langile, horietatik, 648 gizarteratze eta laneratze prozesuan daude

533 emakume, horietatik, 361 laneratze arloko langileak dira

Lansazio osoko **661** lanpostu, horietatik, 420 gizarteratze lanpostuak dira

Laneratze enpresak, pobrezia eta gizarte bazterketaren kontra borrokatzeko tresnetariko bat dira. Hau da, hartzaileak, bazterketa arrisku edo egoeran dauden, lanik gabe edo langabezian dauden eta lan merkatura sartzeko zailtasunak dituzten pertsonak dira. Hortaz, enpresa jarduera eta gizarteratze eta laneratze laguntza metodologiak konbinatzen dituzten ekimen ekonomikoak direla esan dezakegu.

Laneratze enpresek 2013an egindako lanaren berri emateko asmoz, beraz, gizarteratze eta laneratze enpresen egiteko nagusiaren emaitzarik azpimarragarrienak aztertuko ditugu atal honetan.

Langileen egitura eta lanpostu kopurua

Lansaios osoko 661 lanpostu egon ziren 45 GLEtan; %64, laneratze prozesukoak, eta, %36, berriz, prozesutik kanpokoak. Taula honetan, gizarteratze eta laneratze enpresek nahiz erakunde sustatzaileek kontratatutako langileak eta horien funtzioak jaso ditugu:

Laneratze Enpresa	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Laneratze langileak	198	222	420
Zuzendaritza / Gerentzia	15	11	26
Laguntza teknikaria	12	22	34
Ekoizpen teknikaria	48	37	85
Beste funtzio batzuk	62	34	96
Guztira	335	326	661

Erakunde Sustatzailea	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Zuzendaritza / Gerentzia	11	10	21
Laguntza teknikaria	13	24	37
Ekoizpen teknikaria	8	1	9
Beste funtzio batzuk	7	18	25
Guztira	39	53	92

Bilakaerak 2012ko lanpostu guztien aldean %4ko hazkundea erakusten du, eta hori, hain zuzen ere, laneratze prozesuko 19 lanpostu sortzearen ondorio da. Laneratze lanpostuek, %5eko igoera jasan dute, nahiz eta oraindik 2011ko emaitzetara ez diren heldu.

GLEetako lanpostuen bilakaera					
	2009	2010	2011	2012	2013
Laneratze prozesuko lanpostuak	365	464	474	401	420
Laneratze prozesutik kanpoko lanpostuak	309	319	277	236	241
Guztira	674	783	751	637	661

Laneratzea eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE)

Gizarte-bazterketa jasaten duten edo baztertuak izateko arriskuan diren langabeak gizarteratzearen eta laneratzearen alde lan egiten dute gizarteratze eta laneratze enpresek. Laneratze lanpostura aurkeztu daitekeen kolektiboetako bat, DBEa jasotzen duten pertsonak dira. Hurrengo taulan ikus dezakegunez, talde hau urtero hazten doa.

DBEa jasotzen duten laneratze langileak	2009	2010	2011	2012	2013
	226	385	369	390	447

Laneratze prozesuan dauden langileak

2013an zehar, laneratze prozesuan dauden 648 pertsonak egin dute lan 45 GLEetan (2012an baino 7 gehiago); horietatik, %56 emakumeak izan dira, eta, %44, berriz, gizonak. Laneratze prozesuan ez dauden langileak 351 izan dira, honek, 2012 urtearekin alderatuz %13ko jaitsiera suposatzen duen arrik (405 pertsona).

2013 Langileak		Euskadi	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Emakumeak	Laneratze prozesukoak	361	56	235	70
	Laneratze prozesutik kanpokoak	172	33	89	50
Gizonak	Laneratze prozesukoak	287	49	208	30
	Laneratze prozesutik kanpokoak	179	39	127	13
Total		999	177	659	163


2013ko abenduaren 31n ateratako argazkiak, hilabete horretan, laneratze prozesuan dauden 454 pertsona lanean daudela erakusten digu, aurreko urtean baino %3 gehiago (442 pertsona).

Abe 31 langileak guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Laneratze prozesukoak	207	247	454
Laneratze prozesutik kanpokoak	138	133	271
Guztira	345	380	725

Laburbilduz, 2012 urtearekin konparatuz GLEetako langile kopurua murriztu den arren laneratze prozesutik kanpoko lanpostuen galera dela eta, iaz baino laneratze pertsona gehiago jaso dira.

Laneratze prozesuan dauden langileak kontratatze modalitateak

GLEetan laneratze prozesuan dauden langileak kontratatze modalitateei dagokionez, aipatzekoa da 2013an egindako kontratuen %88 44/2007 Legean aurreikusitako kontratu espezifikoak izan direla. Esan beharra dago ere, 2013an zehar burutu diren 661 kontratuetatik, soilik bat prestakuntza eta ikasketa kontratu berria izan dela.



Laneratze prozesuan dauden langileen lanaldi-mota

Kontratuen %61 lansai osoa izan dira eta %39 lansai partzialekoak. Generoka banatuta, aurreko urteetan bezala, nabarmentzekoa da lansai partzialeko ehuneko handia (%69) emakumeen artean.

Lanaldiak	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Lansaio osoa (%)	47	53	61
Lansaio partziala (%)	69	31	39

Lansaio osoei eta partzialei dagokienez, 2009-2013ko bilakaerak oso datu antzekoak erakusten dizkigu, nahiz eta, azken urteko datuek, lansaio osoetarantz joera erakusten duten, 2011n gertatu zen bezala.

Laneratze prozesuan dauden pertsonen kontratuen bilakaera (%)					
	2009	2010	2011	2012	2013
Lansaio osoa	56	55	59	55	61
Lansaio partziala	44	45	41	45	39
Guztira	100	100	100	100	100

GLEetan aritutako denbora


Indarrean dauden legeen arabera, laneratze prozesuan dauden langileak 6 hilabete eta 3 urte bitartean egon daitezke gizarteratze eta laneratze enpresan. Beraz, laneratze prozesuak, prozesu pertsonalizatuak direnez, langileak denbora-tarte desberdinez arituko dira enpresan.

Aritutako denbora	2009	2010	2011	2012	2013
6 hilabete baino gutxiago (%)	18	18	16	13	15
6 eta 12 hilabete artean (%)	25	22	22	26	18
Urte 1etik 2 urtera (%)	29	36	35	33	36
2 urtetik 3 urtera (%)	29	25	27	28	31
Guztira	100	100	100	100	100

Laneratzea

Laneratze prozesuan dauden pertsonen buruzko hainbat datu	2011		2012		2013	
	zk	%	zk	%	zk	%
Laneratze prozesuarekin jarraitu zutenak	434	65	442	69	454	70
Amaitu aurretik, laneratze prozesua bertan behera utzi zutenak	32	5	18	3	6	1
Laneratze kontratua amaitu zutenak	53	8	40	6	40	6
Laneratze prozesua amaitu zutenak	152	23	141	22	148	23
Guztira	671	100	641	100	648	100

2013an 648 lagun izan ziren laneratze prozesuan. Horietatik 188k (%29) prozesua edota kontratua amaitu zuten; 6k (%1) bertan behera utzi zuten, eta 454k (%70) prozesuarekin jarraitu zuten.



Prozesua amaitu zuten 148 lagunetatik 68k (%46) enpresa arruntetan aurkitu dute lana; 7 (%5) gizarteratze eta laneratze enpresan geratu dira, laneratze prozesuko ez den plaza bat betetzen. Azkenik, gizarteratze prozesua amaitu duten pertsonetatik 73k (%49) ez dute lanik aurkitu.

Laneratzeari buruzko informazioa	2010		2011		2012		2013	
	zk	%	zk	%	zk	%	zk	%
Merkatuan, besteren kontura	68	43	59	39	45	32	61	41
Merkatuan, bere kontura	n/d	n/d	8	5	3	2	7	5
Laneratzeari buruzko informazioa geratu dira	14	9	13	9	11	8	7	5
Langabezia	78	49	72	47	82	58	73	49
Guztira	160	100	152	100	141	100	148	100

Laneratzeari buruzko informazioa dagokionez, aurreko taulan ikus dezakegu, 2012an jasandako jaitziera -%58ko langabeziara heldu zelarik- berreskuratu dela, 2010 eta 2011ko laneratze emaitzak berriz ere lortuz, pertsonen %50 baino gehiagok lan merkatu arruntetan sarrera lortzen zutelarik.

Informazio ekonomikoa



Gizarteratze eta laneratze enpresek, komunitatean jarduera eta aberastasun ekonomikoa sortzen dute, pertsona eta inguruarekin konpromisoan oinarrituz eta gure gizartean irizpide etiko, arduratsu eta solidarioak dituzten ondasun eta zerbitzuen erosketak eta kontratazioak sustatuz.


GLEen %82k zerbitzuen sektorean egiten du lan

19.138.689,07 € ondasun eta zerbitzuen salmenta-kontzeptuan, zeinetatik %77 bezero pribatuei dagozkie

Diru-sarrerak guztira 27.910.519,26 €

Jarduera ekonomikoak

GLEen %82k zerbitzuen hirugarren sektorean lan egiten du; %9k eraikuntzan, %7k industriari eta enpresa bakar batek (%2) nekazaritzan. Hurrengo grafikoa Gizateako GLEek burutzen dituzten jarduera ekonomiko ezberdinak aurki ditzakegu:



Diru-sarreraren iturriak

Euskal GLEak %69an finantzatzeko diru ondasunen salmenta eta zerbitzuen prestazioagatik lortzen dituzten diru-sarreraren bitartez. Zailtasun ekonomikoak, diru-sarrera iturrien bilakaeran hauteman daitezke, nagusiki diru-laguntza publikoetan. Hala eta guztiz ere, esan beharra dago, azken urte honetan eta iazko joera apurtuz, salmentaga-

tiko diru-sarrerak %10 batean areagotu direla 2012arekiko eta %2,5a 2011 urtearekiko. Igoera honek, 2013an diru-sarrera guztien kopurua aurreko urtearekiko handitu izana eragin du.

Diru-sarreraren iturriak	2010	2011	2012	2013
Laguntza publikoak	7.222.659	9.051.395	8.952.262,32	7.968.424,17
Laguntza pribatuak	262.093	238.725	242.631,51	275.909,35
Bestelako diru-sarrerak	226.448	1.460.117	907.669,72	527.496,67
Salmentak	17.603.824	18.653.787	17.412.618,45	19.138.689,07
Guztira	25.315.024	29.404.024	27.515.182,00	27.910.519,26

2013 urtean, GLEen fakturazioaren batez bestekoa 425.304 €-koa izan da, 2012an baino %7,5 gehiago (395.741 €). Igoera honen ondorioz, 2011n lortutako batez bestekoarekin parekatzen da. 11 enpresa batez bestekoaren gaitetik daude, eta gainerako 34ak, berriz, azpitik. Bestalde, 661 lanpostutarako fakturazioaren batez bestekoa 28.959,84 €-koa izan da, lanpostu bakoitzeko, 2012an baino %6 handiagoa.

Laguntza publiko eta pribatuak

Laguntza publikoei dagokienez, diru-sarreraren %29 dira, hau da, 7.968.424 €. Laguntza pribatuak 275.909 €-koak izan dira, hau da, %1. GLEek jasotzen dituzten laguntza publikoak mota ezberdinetan banakatzen dira:

Diru-laguntzak	2011	2012	2013
GLEi laguntzak (laneratze enplegua)	4.713.015,44	4.917.208,76	5.060.023,41
GLEi laguntzak (produkzio teknikariak)	639.107,43	585.205,85	700.694,30
GLEi laguntzak (laguntza teknikariak)	336.459,50	347.830,06	374.116,38
GLEi laguntzak (inbertsioak)	716.286,75	843.868,39	589.420,00
GLEi laguntzak (laguntza teknikoak)	23.362,00	22.500,00	10.458,00
GLEi laguntzak (beste kontzeptu batzuk)	101.656,33	22.430,82	114.794,46
GLEi emandako laguntzak, guztira	6.529.887,45	6.739.043,88	6.849.506,55
Bestelako diru-laguntza publikoak	2.521.507,14	2.213.218,44	1.118.917,62
Diru-laguntza pribatuak	238.724,75	242.631,51	275.909,35
Diru-laguntzak, guztira	9.290.119,34	9.194.893,83	8.244.333,52

Laguntzak moten arabera banatzen badira, horien %86 GLEen berriazko laguntza publikoei dagokie, eta %14, aldiz, bestelako laguntza publikoei. Azkeneko urte honetan, diru-sarrerak guztira %10a jausi diren arren, nabaritu beharra dago murriztapen hau bestelako diru-laguntzen murriztapena dela eta eman dela (%50ko jaitziera), GLEen berriazko laguntza publikoak ia %2an areagotu baitira. Hala ere, kontuan hartu behar da GLEen berriazko laguntzak EAEn hainbat urtetarako deialdia direla, beraz, zaila da urte bakoitzera egozten den gastua zein deialdira dagokion jakitea.

Bezere-zorroaren eraketa

GLEek produktu eta zerbitzuak merkatuan eskaintzen dituzte, gainerako enpresek dituzten arau berberekin lehiatuz. 2013an, beraien bezere-zorroaren %77 bezere pribatuek osatzen zuten (enpresak, erakunde pribatuak eta partikularrak), eta %23, berriz, herri-administrazioek eta sektore publikoak osatzen zuten. Taulan ikus daiteke zelan, azken urteotan, gizarteratze eta laneratze enpresek, administrazio publikoei ondasunen salmenta eta zerbitzuen ematean aurrera egin duten.

Bezere-zorroa (%)	2010	2011	2012	2013
Sektore pribatua	86	80	82	77
Sektore publikoa	14	20	18	23

Azterketa ekonomikoa

Emaitza ekonomikoen kontuan arreta jartzen badugu, 33 GLEk emaitza positiboarekin amaitu dute 2013, eta soilik 12k, berriz, emaitza negatiboarekin. Aurreko urteekin alderatuz, non enpresen %45a galerak zituzten, hobekuntza nabaria da.

Emaitza ekonomikoa	2010	2011	2012	2013
Positiboa / Mozkinak	24	24	24	33
Negatiboa / Galerak	20	20	20	12

Txosten honetan aztertutako laneratze eta gizarteratze enpresek 17.082.167,42 €-ko Balio Erantsi Gordina (BEG)¹ izan dute, 2012an baino %5 gutxiago. Ustiapeneko sarrerak

¹ Balio Erantsi Gordina maila makroekonomikoan erabiltzen den magnitudea da, eta herri bateko enpresa guztien balio erantsiaren -ekoizpenaren balioa ken bitarteko kontsumoak- batuketa neurten du; modu horretan eskuratzen da Barne Produktu Gordina (BPG). Laburbilduz, kasu honetan, BEG Gizarteratze eta Laneratze Enpresek herri baten ekonomia produktiboari egiten dioten ekarpena da.

handitu diren arren, lehengaien eta salgaien kontsumoak eta kudeaketa arrunteko beste gastuak oraindik gehiago handitu dira; hori dela eta, BEG murriztu egin da.

	2010	2011	2012	2013
Ustiapeneko sarrerak	25.171.996,00	29.285.778,70	27.522.199,92	27.993.425,14
Lehengaien eta salgaien kontsumoa	-4.483.688,10	-4.349.404,10	-4.404.656,71	-4.836.133,95
Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk	-6.176.008,80	-6.578.557,60	-5.243.311,35	-6.115.297,24
Balio Erantsi Gordina	14.512.299,10	18.357.817,00	17.874.231,86	17.041.993,95
Ezohiko emaitzak	-78.962,00	32.679,70	62.128,27	40.173,47
Sortutako Balio Erantsi Gordina	14.433.337,10	18.390.496,70	17.936.360,13	17.082.167,42

2013ko BEG aztertuz gero, langileen gastuak estali dira -bai egiturazkoak bai laneratzekoak-, baita dagozkien finantza-gastuak ere, hortaz, 1.877.919,85 €-ko kutxa-fluxua edukitzea ahalbidetu du. Kopuru honekin, amortizazio gastuak estaltzera heldu da, beraz, 52.311,96 €-ko Zergen Aurreko Mozkina (ZAM) positiboa lortu da.

Bestelako adierazle ekonomikoak	
Sortutako Balio Erantsi Gordina	17.082.167,42
Pertsonal gastuak	- 15.031.776,23
Finantza emaitzak	- 172.471,34
Amortizazioak	- 1.825.607,89
Zerga Aurreko Mozkina (ZAM)	52.311,96
Amortizazioak	- 1.825.607,89
Kutxa Fluxua edo Cash Flow	1.877.919,85

Itzulkin ekonomikoa



Gizarteratze eta laneratze enpresek komunitateari egiten dioten oinarrizko ekarpena bazterketa egoeran dauden pertsonen gizarteratzea eta laneratzea da. Horretarako, laguntza publiko bereziak jasotzen dituzte.

Inbertsio publiko honek, gizarteari itzulkin bat sorrarazten dio, bai ekonomikoki zein justizia eta kohesio sozialari dagokionez.

Atal honetan, inbertsio horren itzulkin ekonomikoa aztertuko da, bai eta gizarteratze eta laneratze plaza baten balio errealaren zenbatespena ere.

Administrazio publikoei egindako diru-sarrerak

Gizarteratze enpresek administrazio publikoetan 1.418.804,15 €-ko diru-sarrera egin dute zerga ezberdin gisa, 2012an baino %60 gehiago, baina oraindik 2011n egindakoaren %18 gutxiago.

Zergak	2011	2012	2013
BEZ	775.519,04	219.665,62	509.915,14
Sozietateen g/zerga	49.839,71	71.299,32	31.374,89
Bestelako zergak	20.008,63	48.150,93	60.948,61
PFEZ	874.766,52	549.391,76	816.565,51
Guztira	1.720.133,90	888.507,63	1.418.804,15

Itzulkin ekonomikoaren kalkulua

Itzulkina kalkulatzeko, urtean, 15.350 €² gordin kobratzen dituen gizarteratze eta laneratze prozesuko langile baten soldata hartu da oinarri. Zenbateko horri hurrengo kontzeptuak aplikatu zaizkio: Enpresako Gizarte Segurantzza, Langilearen Gizarte Segurantzza, PFEZ, BEZ, Sozietateen gaineko Zerga eta Beste zerga batzuk.

GLEen ekarpena, gizarteratze prozesuan dauden pertsonak kontratatzeagatik	Zenbatekoa, LP/urteko	LP kopurua (laneratze postuak)	AAPPei, guztira, egindako diru-sarrerak
Enpresako Gizarte Segurantzza	4.945,29	420	2.076.082,19
Langilearen Gizarte Segurantzza	959,23		402.694,35
PFEZ	856,14		359.417,53
BEZ	771,58		323.917,68
Sozietateen gaineko zerga	47,48		19.930,53
Beste zerga batzuk	92,22		38.716,90
Guztira	7.671,94		3.220.759,18

Hori horrela, laneratze postuagatik itzulkina 7.671,94 €-koa da. Maila globalean, laneratzeko 420 lanpostuen itzulkina 3.220.759,18 €-koa izan da 2013an.

² Laneratze pertsona (LP) batek duen soldataren batez bestekoak du balio erreferentzia absolututzat jotzeko, izan ere, soldata ezberdinak sektore bakoitzaren hitzarmen kolektiboei jarraiki ezartzen dira. Kalkulu hau asmo bakarrarekin egin da, hots, LPk egiten duen itzulkin soziala neurtzea.

Laneratze lanpostuaren benetako kostua

GLEek jasotzen dituzten laguntza publikoen eta herri-administrazioen itzulkinaren artean konparaketa egiteko, hurrengo kalkulua egin da, honako alderdi hauek kontuan hartuz:

- GLEei ematen zaien laguntza publikoak -guztira- laneratze lanpostu (LP) guztizkoen gain.
- Laneratze lanpostuagatiko Itzulkin Ekonomikoa.

Gizarteratze eta laneratze plazaren benetako kostua	
GLEei emandako diru-laguntza	16.315,73
Itzulkin Ekonomikoa	7.671,94
Benetako Kostua	8.643,78

Egindako estimazioen arabera, laneratze lanpostu baten kostua 8.643,78 €-koa litzateke. 2012an kopuru hau 9.748 €-koa zen, 2013an baino %13 gehiago.

Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duen pertsona baten kostuaren eta gizarteratze eta laneratze enpresa baten kostuaren alderaketa

Kalkulu hau egiteko, hurrengo bi ezaugarriak hartu dira aintzat:

1. Pertsonak Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta gisa (batez beste) jasotzen duena.
2. 3.717 €-ko zenbatekoa kalkulatu da, pertsonak jasotzen dituen beste laguntza sozial batzuei esker:
 - Lehen mailako arretarako zerbitzu sozialen pertsona baten kostua balioestea. Kostu hori Bartzelonako Sindica de Greuges delakoak egin du, La Caixa-ren eta Pompeu Fabra Unibertsitatearen³ arteko lankidetzaren bitartez egindako azterlanean:

³ Sarasa, S. eta Sales, A. (2009): Itinerarios y factores de exclusión social. Bartzelonako Udala, Bartzelonako Sindico de Greuges, La Caixa Ekintza Lana eta Pompeu Fabra Unibertsitatea. Unitate kostuei buruz egindako estimazioa lehen urratsa izan da, zerbitzuen kostuen balioespen egokian aurrera egiteko, eta, azterketa egiteko hurbilketa denez, datu horiek kontu handiz hartu behar dira. Laguntza sozialen kostuei 2009tik dagokien inflazioa gehitu zaie.

Lehen mailako arretako gizarte zerbitzuak	Kostua/pertsona
Urteko batez besteko kostua, artatutako pertsona bakoitzeko, banakako eta familiako arreta sozialean	243
Arreta psikologikoa	854
Gizarte eta hezkuntza arreta	287
Guztira	1.384

- Lanerako Prestakuntzako programa batean, pertsona baten kostua 2.000 €-koa da urteko.

Premisa horiei jarraiki, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta edo antzekoa jasotzen duen pertsona baten kostua hurrengoa litzateke:

	Euskadi
Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta	8.400
Laguntza sozialak	3.717
Guztira	12.117

Datu horiekin, GLE batean pertsona bat izateak administrazioarentzat benetan duen kostuaren eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta kobratzearen artean duen kostuaren artean alderaketa egin daiteke, batez ere, administrazioak gutxiago ordaindu dezan: Hona hemen datuak:

	Euskadi
Kostua Laneratze Enpresa batean	8.643,78
DBE eta laguntza sozialen kostua	12.117,00
Aldea	-3.473,22

Horrela, bada, 3.473,22 €-ko aurrezpena aurreikusten da, laneratze postu bakoitzeko.



**Ondorioak eta zenbait erronka
gizarteratzeko eta laneratzeko
enpresen sektorearentzat**

Aurten ere, nahiz eta zailtasun sozial eta ekonomikoen artean ibili, gizarteratze eta laneratze enpresek, gizarte bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsonen laneratze eta enplegua lortzearen hobekuntzarekin duten konpromisoa mantendu dute. Hura frogatzen dute txosten honetan aurkezten diren datuek, baita azken urteetako bilakaera ere.

Horrela, azken urteetan gizarteratze eta laneratze enpresa kopurua antzekoa izan da. Gutxi dira desagertzen diren enpresak eta, dena den, ekimen berriengatik ordezkatuak izaten dira. Zentzu horretan, nahiz eta 2012an atzerapen xume bat jasan, 2013an laneratze postuak eta postu horiek betetzen dituzten pertsonak areagotu dira. Pertsona hauen lanaldi osoko kontratuak ere hazi egin dira, azken urteetako joera apurtuz.

Aitzitik, laneratze postuak ez diren lanpostu gehiago galdu egin dira, eta honen ondorioz, langileen kopurua guztira murriztu egin da. 2011tik daramagu murriztapen hau jasaten. Zailtasun ekonomikoek, merkatu falta, etab.-ek, enpresek guztira enplegua galtzea eragin dute, kontrataturiko langile guztien %65a suposatzen duen eta hazten dagoen laneratze enpleguari lehentasuna emanaz. Beste datu batzuen artean, nabarmendu beharra dago laneratze kontratua daukaten pertsona guzti hauen %56a emakumeak direla edo, aurretiaz Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duten langileen kopurua areagotzen jarraitzen duela (laneratze prozesuan dauden pertsonen %69 suposatzen dute), pertsona hauen lan-aktibazioa lortuz.

Aurretik azpimarratutako zailtasunak kontutan hartuz, positiboki harrigarria da, 2013an gizarteratze enpresan prozesua behar bezala bukatu ostean, lan merkatuan txertatuak izan diren pertsonen portzentajearen handitzea, %51an kokatu delarik, 2012an lortutako %42a baino askoz hobea eta aurreko urteetako joera berreskuratuz.

Fakturazioaren areagotze nabaria azpimarratzekoa da ere. 2012an, 2011rekin alderatuz, %6 batean murriztua izan bazen ere, 2013an globalki %10a handitu da 2012arekin konparatuz. Diru-laguntzen kopurua guztira, aldiz, murriztu egin da, baita bere pisua diru-sarrera totaletikiko (%29a). Datu hau bereziki esanguratsua eta pozgarria da enpresak merkatuan mantentzeari dagokionez.

Sektore publikoak bezero-zorroan daukan pisuaren areagotzea ere nabarmendu beharra dago: %23a 2012ko %18arekin alderatuz. Erosketa Publiko Sozialki Arduratsuko irizpideen sustapenarekin erlazionatutako joera geroz eta handiagoa izatea espero dugu.

Ondorio horiek eta beste batzuk aintzat hartuta –seguruena, Txosten honetan jasotako datuak zehatz ikertuta ondorio gehiago aterako baikenuke–, laneratzeko enpresek, beren helburu nagusia betetzen jarraitzeko –lan arrunta eskuratzeko zailtasun bereziak dituzten langabeei laneratzeko aukerak ematea–, epe motzean eta oraingo egoeran eta testuinguruan dituzten erronka batzuk aipatu behar ditugu.

- Laneratzeko enpresak oso baliabide egokia dira gaur egun gizartean baztertuta dauden edo egoera horretan geratzeko arriskuan dauden pertsonentzat, langabezia goraka doan une hauetan, zailtasun gehiago baitute lana aurkitzeko.

Hortaz, garrantzitsua da baliabide hau laguntzen jarraitzea eta hura mantentzen saiatzeaz gain, enpresa kopurua haz dadin saiatzea, baita enpresa hauek hiru lurralde historikoetan orekatutako garapen handiagoa izatea ere.

- Funtsezkoa da laneratzeko enpresek enpleguko politika aktiboen eta gizarteratzeko politiken zerbitzuko tresna gisa betetzen duten zeregina azpimarratzea. Hala, bada, instituzio publikoek konpromiso egonkorrak erakutsi behar dituzte haiek indartzeko eta garatzeko.

Zentzu honetan, gizarteratze eta laneratzeko enpresen programaren aurrekontuen berreskurapena aldarrikatu beharra dago, 2010etik hona hainbat murrizketa jasan dituelarik. Oso garrantzitsua da aktibo finkoetako inbertsioei zuzendutako laguntzen atala berreskuratzea, eta, horrez gain, laneratzeko pertsona-kopuruaren ratioak aldatu behar dira, laguntza emango duten teknikariei zuzendutako laguntzak kalkulatzeko.

Laguntza publikoak edukitzea bezain garrantzitsua da merkatuan aukera berriak izatea. Ildo horretan, instituzio publikoek merkatuak erreserbatu behar dituzte laneratzeko enpresentzat, eta, gainera, klausula sozialak finkatu behar dituzte kontratazio publikoko prozesuetan. Eusko Jaurlaritzak 2008an hartu zuen akordioa ezartzen hasi behar da, akordio horrek hori egiteko aukera finkatzen baitu. Horrez gain, hiru foru aldundiek eta udalek parte hartu behar dute, sozialki arduratsua den erosketak publikoko neurri horiek garatzen.

Ezinbestekoa da Laneratzeko Enpresen Programa Lanbideren Enplegu Zerbitzu Publikoan era egokian txertatzea. Era berean, horretarako, ezinbestez aldatu behar da Euskal Autonomia Erkidegoko laneratzeko enpresen erregimena arautzen duen oraingo dekretua.

- Enpresa hauen sektorea ere, bere aurrean erronka garrantzitsuak ditu. Erronka hauetariko askok, Gizatea sortu zenetik garatzen joan diren lan-lerroekin bat datozen, eta gaur egun, enpresa elkarte honen dinamizazio funtzioaren eskutik eratorritako bultzada berri bat behar dute:

- Laneratzeko enpresen ikuspena erraztu behar da, hala gizartean oro har, nola agente sozial, politiko eta ekonomikoen artean bereziki.

- Elkarren arteko lankidetzak bultzatu behar da, enpresen arteko merkataritzako trukeak sustatuz, lizitazio publikoak eskuratzeko akordioak eginez edo merkatu berriak zabalduz, etab.

- Sektore gisa, lankidetzako akordioak sinatu behar dira krediturako sarbidea errazten duten finantza-erakundeekin (bankuekin, kreditu publikoko ildoekin, elkarren bermerako sozietateekin, etab.), batez ere, hurbil dauden erakundeekin, adibidez, Fiare Banku Etikoarekin edo Ekonomia Sozialaren sektoreko beste erakunde batzuekin.
- Lan egin behar da jarduerako sektoreak areago dibertsifikatzeko, horrela enpresen iraunkortasun ekonomikoa handiagoa izan dadin, eta, era berean, laneratzeko izan daitezkeen aukerak zabalagoak izan daitezzen.
- Sektore gisa areago parte hartu behar da Ekonomia Solidarioko beste sektore batzuekin batera (kooperatibekin, bidezko merkataritzarekin, banku etikoarekin, agroekologiarekin...), Euskadin Merkatu Soziala eta bere jarduerak garatzen (produktuen eta zerbitzuen katalogoak, merkaturatzeko tresnak, azokak, etab.), era horretan, merkatuak dituen aukerak zabaltzeko eta, gainera, kontsumo arduratsua eta solidarioa sustatzeko.
- Azkenik, garrantzi handikoa da laneratzeko enpresen eta enpresa arrunten arteko harremana indartzea, lan-bitartekaritza gailuak indartuz, laneratzeko enpresetatik eratorritako pertsonen kontratazio bidezko enpresa erantzukizun soziala sustatuz, baita enpresen zerbitzuak kontratatuz, lankidetzak espazioak sustatuz, etab.

Benetan, erronka garrantzitsuak dira, eta hauei aurre egiteko, gizarteratzeko eta laneratzeko enpresen berezko gaitasunak gehitu behar dira, baita Gizatea inguruan antolatutako enpresa-sektore legez duten gaitasunak ere. Baita garrantzia berekoa da, instituzio publiko eta eragile sozialek, laneratzeko enpresek garatzen duten lanari jarri beharreko sentsibilitatea, laguntza eta konplizitatea.

Enpresa hauek eta, bereziki beren entitate sustatzaileetatik jasotzen duten laguntzari esker, sorrerako helburu sozialarekin zuten konpromisoari eta beren jarduerari eusten diete, batez ere, enplegua ematen dieten pertsonetikiko konpromiso sendoari. Izan ere, pertsona horiei neurria egindako ibilbidea eskaintzen diete, beren enplegarritasuna eta lanean eta gizartean aritzeko dituzten gaitasunak hobetzeko.

2013ko Gizarte Txosten honetako datuak aztertu ondoren labur aurkeztu ditugun erronkei aurre egitea lagungarria izango zaigu, laneratzeko plazen eta enpresen kopurua areago ugaltzeko, laneratzeko enpresek egiten duten lana sendotzeko eta hobetzeko eta, era berean, euskal gizarteak orokorrean eta bereziki eragile instituzional eta sozialek beren lana aintzatestea eta laguntzea lortzeko.



Gizarteratzeko eta Laneratzeko Enpresen zerrenda

Izen soziala	Jarduera sektorea	☎	Lurraldea
ALKAR BIZIZ, S.L.	Etkez-etxeko laguntza, menpekotasundun pertsoneri laguntza zerbitzuak	944 155 723	Bizkaia
AMAYADIGITAL, S.L.U.	Papertegia, inprimategia eta arte grafikoak	945 265 480	Araba
AUKERLAN CONSTRUCCIONES Y REFORMAS, S.L.*	Eraikuntza eta berrikuntzak	688 883 282	Bizkaia
BERAIKI99, S.L.	Eraikuntza eta berrikuntzak	945 108 130	Araba
BEREZI 99 GARBIKETAK-LOREZAINZA, S.L.	Mantentzea eta zerbitzu osagarriak komunitate, enpresa eta lokal komertzialei	945 108 130	Araba
BERJANTZI, S.COOP.	Hondakinen bilketa, tratamendua eta deuseztapena	944 523 374	Araba
BERZIKLATU, S.L.	Hondakinen bilketa, tratamendua eta deuseztapena	946 640 082	Bizkaia
BERZIOARSO, S.L.	Arropa, jostailu, altzari eta 2. eskuko gailuen bilketa eta merkaturatzea	943 344 333	Gipuzkoa
BIDEBARRI ENPLEGU ZENTRUA, S.L.	Elikagaien banaketa	943 716 479	Gipuzkoa
EKORREPARA, S. COOP.**	Arropa, jostailu, altzari eta 2. eskuko gailuen bilketa eta merkaturatzea	692 730 252	Bizkaia
ELKAR PROTEO, S.COOP. I.S.	Garbiketa	944 168 896	Bizkaia
EMAÚS BIDASOA, S.L.U.	Arropa, jostailu, altzari eta 2. eskuko gailuen bilketa eta merkaturatzea	902 455 855	Gipuzkoa
EMAÚS COMERCIO JUSTO, S.L.U.	Elikagaiak eta produktu ekologikoak, premium produktuak	943 367 534	Gipuzkoa
EMAÚS DENDAK, S.L.U.	Arropa, jostailu, altzari eta 2. eskuko gailuen bilketa eta merkaturatzea	944 168 896	Bizkaia
EMAÚS MOVILIDAD SOSTENIBLE, S.L.	Garraio jasagarria	944 168 896	Bizkaia
EMAÚS SERVICIOS MEDIOAMBIENTALES, S.L.U.	Hondakinen bilketa, tratamendua eta deuseztapena. Etxe-aldaketa garraioa. Arropa, jostailu, altzari eta 2. eskuko gailuen bilketa eta merkaturatzea	944 168 896	Bizkaia
ERAKUS-GOIZTIRI, S.L.	Eraikuntza eta berrikuntzak	944 780 541	Bizkaia
EUSKAL POSTALRED, S.L.	Mezularitza, garraioa eta paketeria	944 128 843	Bizkaia
EUSKARRI, KOOP. E. de Iniciativa Social	Etkez-etxeko laguntza, menpekotasundun pertsoneri laguntza zerbitzuak	944 792 386	Bizkaia
GARBINGURU SERVICIOS MEDIOAMBIENTALES, S.L.U.	Baso- eta nekazaritza-lanak	945 120 109	Araba
GOILURRA, S.L.	Elikagaien banaketa. Etkez-etxeko laguntza, menpekotasundun pertsoneri laguntza zerbitzuak	944 780 541	Bizkaia

* Ez du 2013ko gizarte-txostenean parte hartu Gizatera aurtin gehitu delako.

** Gaur egun KOOPERA SERVICIOS AMBIENTALES, S.COOP.I.S. enpresarekin fusionatuta.

Izen soziala	Jarduera sektorea	☎	Lurraldea
IKATZBIZI, S.L.	Etkez-etxeko laguntza, menpekotasundun pertsoneri laguntza zerbitzuak	945 244 226	Araba
ITURRITEK, S.L.	Eraikuntza eta berrikuntzak	944 700 704	Bizkaia
IZARZA, S.L.	Ostalaritza	944 538 273	Bizkaia
JANTZIPREST, S.L.U.	Garbitze- eta tindatze-lanak	685 753 740	Bizkaia
KEIMA ANIMAZIOA, S.L.U.	Aisialdi jarduerak	944 792 255	Bizkaia
KIDE EMAUS, S.L.	Hondakinen bilketa, tratamendua eta deusezapena	945 250 345	Araba
KONFIA, SERVICIOS DE CONCILIACIÓN, S.L.	Etkez-etxeko laguntza, menpekotasundun pertsoneri laguntza zerbitzuak	943 368 561	Gipuzkoa
KOOPERA SERVICIOS AMBIENTALES, S.COOP.I.S.	Hondakinen bilketa, tratamendua eta deusezapena	944 523 374	Bizkaia
KUPELAN KENTUCKY, S.COOP.	Ostalaritza	946 071 962	Bizkaia
LAIATZEN, S.L.	Eraikuntza eta berrikuntzak	944 700 704	Gipuzkoa
LAIENE JATETXEA, S.L.	Ostalaritza	944 237 089	Bizkaia
LAPIKO CATERING, S.L.	Ostalaritza	688 679 545	Bizkaia
LIBURKI, S.L.L.	Papertegia, inprimategia eta arte grafikoak	944 462 279	Bizkaia
LOGICART, S.COOP.	Papertegia, kopia-denda eta bulego-materiala	944 760 969	Bizkaia
OARSOTEK, S.L.*	Industria-zerbitzu osagarriak	943 494 129	Gipuzkoa
OR KONPON TABERNA, S.L.	Ostalaritza	944 237 089	Bizkaia
PORMU KOOP. ELK. TXIKIA	Mekanika	664 267 778	Bizkaia
REKAGARBI, S.L.U.E.I.	Garbiketa	944 802 436	Bizkaia
SERVICIOS DE HOSTELERÍA PEÑASCAL, S.L.	Ostalaritza	944 700 704	Bizkaia
SERVICIOS GENERALES INTEGRADOS EFICIENT, S.L.	Garbiketa	944 914 375	Bizkaia
SOKAIRE SERVICIOS DE LIMPIEZA, S.L.U.	Garbiketa	944 167 904	Bizkaia
SUSPERTU, S.L.	Ostalaritza	944 008 060	Bizkaia
TINKO GARBIKETAK, S.L.	Garbiketa	945 235 574	Araba
URBEGI INSERCIÓN, S.L.	Industria-zerbitzu osagarriak	946 801 934	Bizkaia
ZABALTEGI JUDIMENDI, S.L.U.	Ostalaritza	945 251 840	Araba
ZURTEK, S.L.	Eraikuntza eta berrikuntzak	944 700 704	Bizkaia